

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

#### ONDARE ZERBITZUA

**Iragarkia, honako foru agindu hau jakinarazteko dena: 489/2021 Foru Agindua, uztailaren 29koa, zeinaren bidez onesten baita Florentina Bernaola Ayesta andrea abintestato jaraunse deklaratzeko prozedura hasteko erabakia, Arabako Foru Aldundiaren alde**

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren uztailaren 29ko 489/2021 Foru Aginduak xedatu du hasiera ematea Florentina Bernaola Ayesta andrea abintestato jaraunse deklaratzeko prozedurari, Arabako Foru Aldundiaren alde.

Kausatzailea Laudion hil zen 2013ko uztailaren 19an, testamentuzko jaraunslarik eta jaraunspenerako eskubidea duten legezko jaraunslarik egon gabe.

Dagozkion jarduketak egin dira jakiteko zer ondasun eta eskubidek osatzen duten Florentina Bernaola Ayestaren jaraunspena. Honako hauek identifikatu dira, gerora ezagutu daitezkeenez gain:

– Hiri finka (Bidebarrieta kalea 1, 1. esk., 2. solairua B, 01400 Laudio), Laudioko erregistro zenbakia: 3.571, 1 poligonoko 299 lurzatia. Kausatzailea jabari osoaren titularra da izaera pribatiboarekin.

– Landa finka, Aretan, Santamatxu parajea, Laudioko erregistro zenbakia: 12.158, 1 poligonoko 957 lurzatia. Kausatzaileak erdi zatiezin bat dauka ehuneko 50ean.

– Bi nitxo Laudioko hilerrian: 163 nitxo eta 556-C nitxo alokairuan.

– Landa finka Guriezon, Llosa de Llaguno lekuan, 7.939 erregistro zenbakia, 31 poligonoko 28 lurzatia. Jabari osoaren titulartasuna, izaera pribatiboarekin.

– Landa finka Guriezon, Llosa de Llaguno lekuan, 7.967 erregistro zenbakia, 31 poligonoko 60 lurzatia. Jabari osoaren titulartasuna, izaera pribatiboarekin.

– BBVA banketxeke kontu korrontea, 2.199,16 euroko saldoarekin, 2020ko uztailaren 29an.

– 2.230,16 euroko zorra Laudioko Udalarekin, 2020ko uztailaren 17an.

Edozein interesdunek alegazioak edo dokumentuak aurkez ditzake kausatzailearen ondasunei buruz edo jaraunse legitimoen balizko existentziari buruz, hilabeteko epean iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik, hargatik eragotzi gabe alegazioak edo dokumentuak prozedura ebatzi aurreko edozein unetan aurkezteko aukera. Prozedura ebazteko gehieneko epea urtebetekoa izango da, prozedura hasteko erabakia onartzen denetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 16a

*Ondare Zerbitzuko burua*  
**LUIS ALBERTO VALDOR**